

V - BESTELAKOAK

SANTA MARIA KATEDRALA FUNDAZIOA

Aseguru-polizak kontratatzeako lizitazioa

1. Erakunde adjudikatzailea: Santa Maria Katedrala Fundazioa.

2. Kontratuaren helburua:

A) Helburuaren deskribapena: Fundazioak, hartzaile gisa, bost aseguru-poliza kontratatzea.

B) Mota: zerbitzuen prestaziorako kontratua.

C) Banaketa loteka:

1. lotea: enplegatuen istripuak; 2. lotea: makineriako matxurak - arrisku orotakoa ekipo elektronikoetan; 3. lotea: arrisku orotakoa eraikuntzan; 4. lotea: gizarte-erantzukizuna; 5. lotea: eraikinen aseguru

D) Iraupena: lau urte, gehi behin-behineko bi luzapen, urtebetekoak.

3. Izapidea, prozedura eta adjudikatzeko era.

A) Izapidea: ohikoa

B) Prozedura: irekia

C) Adjudikatzeko modua: ekonomikoki hobea den eskaintza. Ikusi adjudikatzeko irizpideak ezaugarrien taulako "U" puntuan.

4. Lizitazioaren oinarritzko aurrekontua.

1. lotea: 700,00 euro urteko prima guztira

2. lotea: 1.700,00 euro urteko prima guztira

3. lotea: 2.500,00 euro urteko prima guztira

4. lotea: 5.200,00 euro urteko prima guztira

5. lotea: 3.600,00 euro urteko prima guztira

Aurrekontua 54.800,00 eurora iristen da kontratuko lau urteetarako. 3/2011 Errege Lege Dekretuaren 88. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, kontratuaren kalkulaturako balioa 82.200,00 euro izango litzateke kontratuko lau urteetarako, gehi beste bi urteko luzapena hala erabakitzen bada.

5. Bermeak:

Behin-behinekoa: ez da eskatzen

Behin betikoa: adjudikazioaren zenbatekoaren ehuneko 5

6. Kontratataren berriazko baldintzak

A) Sailkapena: ez da eskatzen

B) Kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa: ikusi ezaugarrien taulako "O" puntua.

7. Dokumentazioa eta informazioa eskuratzea:

Fundazioaren administrazio saila

Tokia: Vitoria-Gasteizko Aiztogile kalea, 95

Telefonoa eta faxa: 945122160

Edo Kontratugilearen profilean: www.catedralvitoria.eus

8. Eskaintzen aurkezpenak:

A) Epea: ALHAOn lizitazio-iragarkia argitaratzen denetik kontatzen hasi eta egutegiko hurrengo 15 eguneko epea izango da.

Eskaintza postaz aurkezten bada, Administrazio Publikoen Kontratuen Lege Orokorraren Arautegiko 80. artikuluan ezarritakoaren arabera egingo da.

B) Aurkeztu beharreko dokumentazioa: ikusi ezaugarrien taula eta orri administratiboak eta teknikoak.

C) Aurkezteko tokia: Vitoria-Gasteizko Aiztogile kaleko 95. zenbakian dauden Fundazioaren bulegoetan, 14:00ak arte. Azken eguna larunbata edo jaieguna balitz, hurrengo egun baliodunera atzeratuko litzateke.

9. Eskaintzak irekitzea:

“C” gutun-azala proposamenak aurkezteko egunetik hasi eta laugarren egun baliodunean irekiko da, 13:00etan, Santa Maria Katedrala Fundazioaren bulegoan, jendaurrean eta “B” gutun-azala ireki ostean.

“A” gutun-azala proposamenak aurkezteko egunetik hasi eta zazpigarren egun baliodunean irekiko da, 13:00etan, Santa Maria Katedrala Fundazioaren bulegoan, jendaurrean.

10. Beste informazio batzuk:

Ikusi ezaugarrien taulako behaketan atala.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko abuztuaren 22a

Zuzendaria

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE